

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Mozorro festa betea

Inauterizaleek ospakizun ederraz gozatu ahal izan dute / 2-9

## Ansaren lehen txapela

Urnietarrak Kutxabank Masters finala irabazi zuen, Barrenetxea IV gainditu ostean / 13

**Euken Garmendia izango da EH Bilduko alkategaia Urnietan, barne prozesua burutu ostean / 12**

**Martxoaren 8ko egitaraua aurkeztu dute Andoainen, lehen hamabostaldira luzatuko dena / 11**



## Inauteriak Aiurri.eus gunean



Andoaingo Inauteriak



Urnietako Inauteriak



Argazki-bildumak, bideoak



Larunbat arratsaldean, 1978. urtera egin zuen jauzi Urnietak, Village Peoplerekin YMCA dantzatzeko. AIURRI



Kaxiano ere izan zen herri bazkarian. AIURRI



Bizarrap eta Shakira. AIURRI

# Izarrak kantuan eta dantzan aritu ziren

Musika izarrak hizpide, Inauteri giroan murgildu ziren herritarrek larunbatean, Urnietan. Eguraldia lagun izan zuten mozorrozaleek, eta, herriko zenbait txokotan banatuta parte hartu zuten jai-giroan

## Erredakzioa URNIETA

Eguraldia lagun, giro ezin hobea izan zen larunbatean Urnietan: musika izarrez bete zen herria, eta askotariko erritmoen pean igaro zuten Inauteri festa bizilagunek, hainbat txokotan banatuta.

Goizetik hasi eta iluntzera bitarte, festa ederra izan zen Idiazabal kalean barrena, karroraz bete baitzen. Era berean, oholza gainera igo ziren asko eta asko, Urnietako Topatuen taldearen eskutik, "Tu cara no me suena de na" ekitaldi berezia egitera. Horrela, abeslari famatuen bertsiok kantatu eta dantzatu zituzten herritarrek. Dena

dela, ospakizun usaina herri osoan antzeman zen. Izan ere, San Juan plazan ere zer gozatua egon zen. Ildo beretik, anplipotea antolatu zuen Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak, eguerdian, herriari itzulia eman eta Egape Ikastolan paellada ederra dastatzeko.

Tiket guztiak salduta, gazte bete zen hitzordua eta hasiera ederra eman zioten arratsaldeari. Shakira, Kaxiano, David Bowie, Village people, Hemendik At! eta beste hamaika talde izan ziren Egape Ikastolako futbolzelaian. Nor bere ileorde, makillaje eta mozorroekin, askotariko musika generoz disfruta-

tzeko aukera izan zuten herritarrek, arratsaldeko hitzorduari lekukoa eman baino lehen.

Behin tripa bapo-bapo, 17:00tan, kontzertua izan zen, gazte kuadrillen elkarteak antolatuta, eta makina bat bertsiok abesteko eta koregorafiatzeko aukera izan zute urnietar festazaleek.

Bada, ordu horretan, herritarren mozorro kalejira irten zen San Joan plazatik, Bosko Anitz txarangak girotuta, ohiturei men eginez.

Borobil joan zen eguna herrian, etxeko txikienetatik hasi eta helduenetara bitarte, mozorroei zukua atera eta, bete-betean, inauteriaz gozatzeko.



Giro mexikarra ipini zuen Loz Zopilotes Txirriaos taldeak. AIURRI



Hainbat abesti jo zituen Sum 41 taldeak. AIURRI



Ez ziren ileordeak falta izan hitzorduan. AIURRI



Taldean zein bakarka, mozorro ederrak jantzi zituzten gazteek. AIURRI



Musika izarrak oinarri, askotariko mozorroz bete zen Egape Ikastolako futbol-zelaia. AIURRI

## Idiazabal kalean luzatu zen festa



Giro ederra bildu zen oholtzaren bueltan egun osoan. AIURRI



Lotsak atzean utzi, eta ikuskizun ederra eman zuten herritarrek. AIURRI

**Doinuak** Dantzan eta kantuan ipini zituen Topatuen taldeak herriko inauterizale guztiak. Askotariko bertsioak entzun ziren Idiazabal kalean, ABBAtik hasi eta El Drogasera bitarte. Mozorro ikusgarriekin igo ziren urnietarrak taula gainera.



Urrietako  
udala



Gora Kaletxiki Txarangen kaleak alaitzen, hiru ikastetxeak atzetik dantzan dituela. AIURRI

# Ikasleen Inauteri festa, Ostegun Gizenean

Ostegun Gizenarekin batera Ondarreta, La Salle Berrozpe eta Aita Larramendi ikastetxeak kalera irten ziren. Behetik gorako bidea egin zuten, Gora Kaletxiki eta Gauerdi txarangen gidaritzapean

## Erredakzioa ANDOAIN

Ikastetxeak asteak egon dira mozorroak eta dantzak prestatzen. Bada, Ostegun Gizena iristearekin batera, kaleak askotariko kolorez bete ziren, Gora Kaletxiki eta Gauerdi txarangen laguntzarekin.

Hari beretik tiraka, ikastetxeek Gora Kaletxiki txarangaren gidaritzapean ekin zioten martxa-

ri eta, tartean, Gauerdi txaranga doinua jartzen lagundu zuen. Inauteri usaina kale guztietan barreiatzen hasi zen, kuxkuxeroen, gurasoen eta senitartekoen begiradapean. Ia Andoain guztia zeharkatuta Goikoplazan geratu ziren, ikastetxeka eta taldeka, lurrean eserita; animaliak, pailazoak, tunoak, sorginak, krispeta saltzaileak... Guztien artean,

Goikoplazak itxura koloretsua eta alai hartu zuen. Ikasleak taldetan ongi banatu ostean, ikastetxe bakoitzeko ordezkariak udaletxeko balkoira igo eta Inauteriei hasiera emateko pregoia irakurri zuten.

Azkenean, jaiei hasiera ederra emanda, talde guztiak dantzan aritu ziren; fandangoa, arin arina eta beste hainbeste.



Goikoplazaren ez-ohiko argazkia. JOXAN MELO



Aita Larramendi Ikastolako ikasleak, Kale Nagusian. AIURRI



La Salle Berrozpeko ikasleak tunoz jantzita, txarangaren atzetik dantzan. AIURRI



Ondarretako ikasleek askotariko mozorroz alaitu zituzten kaleak. AIURRI

## Haur ikuskizunak, lehen egunetan



Potx eta Lotx pailazoak, ostegun arratsaldean. AIURRI



Fantasia kalejira, ostiral arratsaldean. AIURRI

**Kale ikuskizunak** Musikariak, pailazoak, malabaristak... Aurtengo egitarauan kultur jarduera ugari antolatu dira. Osteguna eta ostirala Inauteri giroan murgiltzeko egunak izan ziren Andoainen.



**andoaINDARRA**  
euskaraz



Mozorro askoren atzean, prestaketa lan handia eta irudimena islatu zen. AIURRI

# Inauteri giroko asteburua

Konpartsen eta lagun-taldeen eskutik, mozorro koloretsuak eta umorez betetakoak nagusitu ziren Andoaingo kaleetan larunbatean, goizean, arratsaldean eta ilunabarrean

## Xabier Lasa ANDOAIN

Mozorro festari goizetik ekin bazitzaion ere, arratsaldean egin zuen gainezka, makina bat herritar irten baitzen kaleak umorez eta kolorez janzteko asmoz. Batzuek, etxean mozorrotzera animatu zirenek, konpartsetan nahiz lagun-taldean murgildu ziren. Besteek, espaloiak hartu zituzten, desfilea ikusteko irrikatan. Bizitza erreala zein fikziozkoa gogoratzen zizkiguten kontu ezin ahala pertsonaje eta egoera irudikatu zituzten inauteri zaleek, Andoaingo kaleetan

barrena. Bakar batzuek Andoain erreferentzia zuten gaiak hautatu zituzten. Hala nola: Andoaingo Hontzak, Santa Krutz zubiko armiamak, Goiburua Team enpresako esku pilotariak, herriko irteeretako tele-peajeak...

Gehienek, baina, ikuspegi orokorragora jo zuten: zoru-garbigailuak, piratak, egiptoarrak, zahar-etxeko egoiliarak, guardia zibilak, Santurtziko sardina saltzaileak, Vikingoak, apaizak, mojak eta deabrututako gaixoak, deabruak, hippyak, golfeko jokalariek, leihoetako kuxkuxe-

roak, punkiak, ezkonberriak, zahar etxeko egoiliarak, Belle Epoquekoak, safari zaleak, litxarkeriak (Cheetos...), deabruak, Cancan dantzariak, Fournier kartak, astronautak, Charliren Aingeruak, mexikarrak, futbol amerikarrek jokalariek, Supermanak...

Inauteri zaleen artean, nabarmentzekoa da klasikoetan klasikoena: Maria Luisa Etxeberria. Ez zuen hutsik egin! 70eko hamarkadaren amaieran Inauteriak berreskuratu zirenetik, soilik, bi urtetan ez du parte hartu.



Iñakik eta Evak ederki gozatu zuten festarekin, kalean gora eta kalean behera. AIURRI



Santa Krutz zubiko bi armiarma desfilean parte hartzera animatu ziren. AIURRI



Lau zoru-garbigailu Andoaingo kaleak garbitzen aritu ziren. AIURRI



Exorzismoa praktikatu zuten deabrua gorputzean sartuta zeukanarekin. AIURRI



XX. mende hasierako dotorezia, bistan. AIURRI



Desfilea etxeko leihoatik begira, kuxkuxero kuadrilla. AIURRI



Maria Luisa Etxeberria, ezinbestekoa Andoaingo Inauterietan. Soilik bi alditan ez da mozorrotu, 1978az geroztik. AIURRI



Goiburu Team enpresako pilotarien kuadroa. AIURRI



Andoaingo Hontzek desfilean parte hartu zuten. AIURRI



Santurtziko sardina saltzailleak, koreografia eta guzti. AIURRI



Charliren Aingeruak, pistolak eskuetan. AIURRI





Santa Krutz jaietako auto-txoekak Plaza Moreara ekarri zituzten. AIURRI



Denetarikoz mozorroak bildu ziren Goikoplazan, desfileari amaiera emanez. AIURRI



Klaap dantza eskolako dantzari gazteek dantza saio ikusgarriak egin zituzten. AIURRI

## Sardinaren ehorzketaren itzulera



Bederatzi urte eta gero, segizioaren ohitura berreskuratu dute. AIURRI

**Itzulera** Lupercales konpartsako kideak inauteri festan ekintzaile aritzen dira. Larunbatean eta igandean karroza atera zuten, eta igande iluntzean euren eskutik egin zen Sardinaren ehorzketa. Bederatzi urteko hutsunearen ostean, ekitaldia berreskuratu dute.



Aita Santuak eta elizako gainerako ordezkariak parte hartu zuten. AIURRI

**Segizioa** Sardinaren atzetik inauterizaleak elkartu ziren, eta ez soilik Lupercales konpartsako kideak. Parte hartzailea izan zen, eta igande eguerdian hasitako ospakizunari amaiera emateko baliagarria izan zen.



Sardinaren Ehorzketaren segizioa, Zumea kalean barrena. AIURRI

**Ehorzketa** Kale Nagusian behera jaitsi ondoren, Goikoplazara igo ziren eta udaletxe ondoan erre zuten sardina. Umorez zipriztindutako ekitaldia izan zen, eta adin guztietako herrikideak batu ziren jaira.



Astelehen arratsaldeko ez ohiko plenoa, Andoaingo Udal batzar aretoan. AIURRI

# C2a izan zen hizpide bakarra

Herritarren etxean, udaletxean, C2ak Kaltetutakoen Plataformak euren dekalogoia luze eta zabal aurkezteko aukera izan zuen. Era berean, alderdi politiko bakoitzak bere iritzia agertu zuen. Bozketan jeltzaleak aurka agertu ziren, eta, gainerakoak, alde

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Irailaz geroztik, C2ak Kaltetutakoen Plataforma Andoaingo gizartean eta politikan eragiteko lanean ari da. Zentzu horretan, mobilizazio eta ekimen ezberdinetan herrikide asko gerturatzeko gaitasuna dutela erakusten ari dira. Azken asteotan, dekalogoia jendaurrean aurkeztu eta sinadura-bilketari ekin diote. Hiru milatik gora lortu dituztela iragarri berri dute. Andoaingo Udalbatzara eramanez, Udal ordezkariak dekalogoarekin bat egin dezaten.

Astelehenekoa bi ordu eta erdiko pleno luzea izan zen. Bozkeramaile lanetan aritzen den Perez de Eulatek ordubetetik gora hitz egin zuen, auziari buruzko xehetasun ugari eskainiz. Nor ordezkatzeko argi utzi nahi izan zuen, mintzaldiaren

hasieran: "Plataforman kaltetutako jendea elkartu gara. Dozenaka gara eta ez diogu sentsibilitate politikoaen arabera elkarri begiratzen. Kaltetutakoen plataforma gara, ez besterik". Hiri Antolamendurako Plan Orokorra indarrean dagoenez, eta bertako filosofiarekin bat egiten dutenez, plan orokorrean biltzen diren hainbat ideia dekalogoan txertatu dituzte, eta argudio horien defentsa egin zuen. Hirigintza, trafikoa, kutsadura... Elementu ugariaren erreferentziak egin zituen, ondorengo esaldia adierazteko

**DEKALOGOAREN ALDE AGERTU ZIREN EH BILDU, PSE-EE ETA PODEMOS. EAJ-PNV AURKA AGERTU ZEN**

testuingurua sortuz: "N1aren ibilbidea lekuz aldatzeko egitasmoaren zain daramagu hogeita hamar urtez eta orain norbaitek bere horretan jarraitzea erabaki du". Perez de Eulate ez zen hitza hartu zuen plataformako kide bakarra izan. Marta Delgadok herritar modura jokatzeko eskaera luzatu zien politikoei. Harentat koherentzia herritar modura jokatzeko baita, eta ez interes politikoei men eginez aritzea. Herri ekimenaren parte hartzearen aurretik Udal ordezkariak hitza hartu zuten, ordu eta erdiz, gaiari buruzko iritzia agertzeko.

**PSE-EE**

"Irailaren 12an adierazi genuen, eta, orain, errepikatzen dugu: Andoaingo sozialistak Aldundiak aurkeztu duen C2 egitasmoaren aurka gaude. Andoaingo inte-

## Arreta handia piztu zuen plenoak



Pleno aretoa bete zen. Gehienak plataformako kideak ziren. AIURRI

**Batzar aretoa** Batzar aretoan eta telebista bidez, dozenaka herrikidek plenoaren jarraipena egin zuten. Bi ordu eta erdiko saioa izan zen.



C2ak kaltetutakoen plataforma udaletxearen kanpoaldean elkartu zen. AIURRI

**Goikoplaza** Kanpoaldean auzotar talde bat plenoa internet bidez jarraitzen aritu zen. Eta behin amaituta, txalo egin zieten plenoan hizlari aritu zirenei.

resak defendatzeko gaude, eta guk oso argi dugu hori. C2ren egitasmoaren aurka gaude".

**EAJ-PNV**

"Interes partikularrak, onura pribatua bilatzen dutenak daude. Baina ikuspegia altxa eta kolektiboan pentsatu behar da. EAJ-PNV ados dago zaratari eta kutsadurari lotutako afekzioei irtenbidea emateko. Ingurumen mailako eragina txikitzearen alde dago. Baina horrek ez du esan nahi Plan Orokorra eta saihezbidea direla alternatiba bakarra".

**PLENOAREN BIDEOAK EHUNKA BISITALDI DITU, GAIK SORTU DUEN INTERESAREN SEINALE**

**EH Bildu**

"Andoaingo hurrengo 30-40 urteko etorkizuna baldintzatuko da. 2019tik ari gara gai hau mahai gainean jartzen, udaletxean. EH Bilduren jokabidea zein den argia da. Aski ezaguna da. Eta gobernu taldeak zerbait egingo du C2a gerarazteko? C2a geldiarazi nahi da? Ala ez?"

**Elkarrekin Podemos**

"Botoa eman digute Andoainen alde aritzeko. Eta, gure ustez, Andoaingo alkateak herritargoa defendatu behar du. EAJ-PNVren jokabidea koherentea da, eta, horrelakoa izaten ari da C2aren defentsan, baina ez dut sinesten C2a egitasmo ona dela uste dutenik".

Bozketarekin amaitu zen batzarraldia. EH Bildu, PSE-EE eta Podemos alde agertu ziren, eta EAJ-PNV, aldiz, aurka.



Udal ordezkariak eta teknikariak Tanya Van Daele Najarro kartelaren egilearekin batera. AIURRI

# Egitarau oparoa Andoainen

Martxoaren 8a iritsi orduko, Berdintasun sailak egitarau oparoa eskaini nahi die herritarrei. Aurtengoan ere hitzorduetan parte hartzeko deialdia egin du Udalak. Egitaraua bi astez luzatuko da

**Erredakzioa** ANDOAIN Berdintasuneko zinegotzi Petri Romerok, Mainer Lainez alkateak eta Sandra Barrenetxea teknikariak martxoaren 8aren gaineko programazioaren aurkezpenean deialdi zehatza egin zuten:

"Herritarrak animatu nahi ditugu martxoaren 8aren inguruan antolatutako jardueretan parte hartzera". Eskertza adierazi zieten, bestalde, udal sail ezberdinei eta emakumeen elkartei: "Funtsezkoa dela parte-hartze hori,

emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde lanean jarraitu ahal izateko". Aurtengo kartelaren egilea saritu zuten, ekitaldi berean. Irabazlea Tanya Van Daele Najarroren "Gaia" lana izan da.



Laura Galan aktorea, Carlota Peredaren "Cerditas" laburmetraian. CERDITAS

## Aurtengo egitaraua

**Martxoak 8, egitaraua**  
**Martxoak 3, ostirala**  
"La panadera" antzelana.  
20:00 Bastero.

**Martxoak 4, larunbata**  
Berdintasunerako oihalak.  
12:00-14:00 Plaza morea.

**Martxoak 7, asteartea**  
Emakumeek zuzendutako film laburren zikloa:  
*Madres de luna, Pipas, Cerdita, Aurelia, La Boda, Atocha 70.* 16 urtetik gorakoentzat.  
18:30 Bastero.

**Martxoak 8, asteazkena**  
Irakurketa morea.  
17:00 Ludoteka.  
Manifestazioa Andoaingo Asanblada Feministak antolatuta.  
18:30 Goikoplaza.

**Martxoak 9, osteguna**  
"Tuppersex" antzezlana, Zuena taldeak antolatuta.  
20:30 Bastero.

**Martxoak 10, ostirala**  
Ezpainetako kakaoa eta aeromaterapia.  
17:00 Gazte Lokala.  
Kai Nakai artistaren emanaldia.  
20:00 Bastero.

**Martxoak 11, larunbata**  
Euskal Pilota egokituaren pala zabaleko topaketa irekia.  
10:00-14:00 Arrate.

**Martxoak 12, igandea**  
Andoaingo emakume futbolarien jaia.  
12:00 Ubitarte.

**Martxoak 15, asteazkena**  
"Emakumezkoen futbolaren iragana eta oraina, profesionalizazioarako bidea" hitzaldia, Euskaldunaren eskutik.  
18:30 Bastero.

**Martxoak 18, larunbata**  
Buruntzaldeko emakumeen III. pala topaketa. Parte-hartze irekia da.  
17:00-20:00 Arrate.

## Berdintasun oihalak

"Berdintasun Oihalak" emakume talde baten eskutik antolatutako ekimena da, Martxoak 8 Emakume garai bateko egitasmoaren oinarritik abiatu dena. Dagoeneko Andoaingo emakumeak oihalak partekatzen eta batzen hasi dira. Horrez gain, datorren martxoaren 4rako ekitaldi jendetsua antolatzekotan dira, Bastero ondoko Plaza Morean.





AIURRI

## Kantazaun taldearen kalejira

Ohiturari men eginez, hilabeteko azken ostiralean, kalera aterako da Kantazaun. Otsailaren 24an izango da, hain justu ere. Arratsaldeko 19:00tan bilduko dira San Juan plazan eta, bi orduz, kaleak girotuko dituzte. Saioa irekia da, beraz, kantuan aritzeko interesa duen oro gertura daiteke hitzordura.



UDALA

## Garaian garaiko aipamenak

Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunean, Urnietako udal liburutegiak emakume zientzialariei begirako txokoa osatu zuen. Laster ekimen berria egingo dute, martxoaren 8a gainean baita. Irakurzaletasuna sustatzeko ekimena da, garaian garaiko erreferentziak biltzen dituen liburu-sorta liburutegiaren atarian erakutsiz.



Eukén Garmendia. AIURRI

## Garmendia izango da EH Bilduko hautagaia

Zerrendaburu izateko bi hautagai aurkeztu ziren, eta De Migueli gailendu zaio Garmendia

### Erredakzioa URNIETA

Urnietako EH Bilduk jakinarazi nahi du maiatzak 28ko udal hauteskundetarako bere zerrendaburua Eukén Garmendia izango dela.

Zerrendaburu izateko bi hautagaik aurkeztu zuten beren burua, Ainara de Miguelek eta Eukén Garmendiak. Bi zerrendaburu zeudenez, aukeraketa prozedura martxan jarri zen eta horren baitan herri batzarra ere egin zen bi hautagaiek aurrera eraman asmo zituzten euren politiken berri emateko. Ondoren, bozketa elektronikoa egin da EH Bildu alderdiaren webgunearen bitartez. Bozketa horretan Eukén Garmendiaren aldeko hautua egin dute bozkatzaileek % 65,8ko babesarekin.

### Talde sendoa lotu nahi du

Garmendia EH Bilduko zerrenda osatzen hasiko da, eta aste batzuk barru jakinaraziko du taldea nork osatzen duten. Zerrendan joango diren kideez gain herritar sare sendoa sortu nahi luke Garmendiak, urnietarrek etorkizunean hartu behar diren erabakietan parte hartze zuzena izan dezaten. Konpromiso bakarra hartu du, oraingoz: gardentasun eta zintzotasun osoz jokatzeari.

## "Hondamendia" antzezlana

"Hondamendia" obra izango da hilren 26an, igande honetan, Sarobe arte eszenikoen gunean, arratsaldeko 19:00tan. Artedrama eta Axut! konpainiek, hamarkada pasatxoko elkarlanean, berriki hezur-haragitu duten ikuskizuna da. Zaldibarko zabortegiaren amiltzetik abiatuta, eta, pandemiaren auziari tiraka, hainbat galderaren gainean hausnartzea du xede emanaldiak.



© AINHOA RESANO

## "Administrazioa zugandik gertu" ekimena Urnietan

"Administrazioa zugandik gertu" formakuntza izango da Urnietan hilaren 28an, Lekaion, goizeko 10:00etan hasita. Espainiako Estatuak berriki martxan ipinitako proiektua da: 500-8.000 biztanle bitarteko udalerrietako herritarrei administrazioaren izapide eta prestazioen kudeaketa erraztea du xede egitasmoak eta Gipuzkoako 43 herritara ailegatu da, baita Urnietara ere. Orotara, orduerdi bat hartuko du saioak eta administrazioa sartzeko moduak azalduko dira bertan: Ziurtagiri Digitala eta Cl@ve iraunkorra. Halaber, zuzenean lortu daitezkeen zerbitzuei buruz hitz egingo da: ziurtagiriak, Gazte Kultura Bona, TZNarekiko harremanak eta Gizarte Segurantzak... Ordenagailu pertsonala eramaten dutenek Ziurtagi edo Sinadura Digitala momentuan bertan lortzeko aukera izango dute, eta baita beste dokumentu batzuk ere.

## Lizardi kaleko etxe tasatu bat salduko da, zozketa bidez

Etxebizitza tasatu bat zozkatuko da aurki: Lizardi kaleko 13. portaleko beheko solairua. Interesdunek Etxebiden izena emanda egon beharko dute horretarako eta otsailaren 24ra arte izango dute herritarrek parte hartzeko aukera. Lehen, lokal bat zen espazioa etxebizitza bihurtu zuen jabeak, eta, udal ordenantzei jarraiki, tasatu izaera hartu zuen. Orain, ordenantza horietan zehazturiko prozedura jarraitu behar du ondorengo ezaugarriak dituen etxebizitza saldu ahal izateko: Araubide Bereziko Udal Etxebizitza tasatua da; hiri-finka, Lizardi Kalea, 13 Bj. A atean. 82,03 m<sup>2</sup>-ko azaleraduna eta 155.000 euroko kostuarekin. Aiurri.eus webgunean, zehaztuta daude xehetasun guztiak, izan ere, gutxieneko zenbait irizpide bete beharko dituzte herritarrek, bertan parte hartu ahal izateko.

## "Zaintza eta garbiketa sektoreko emakume langileak"

Zaintza eta garbiketa sektorea abiapuntu, erakusketa bat egingo du eskualdeko Itxia Emakume Antolakunde Sozialistak. Ostiralera bitarte egongo da ikusgai herriko Lekaio kultur etxean eta "hausnarketarako abagune" izatea nahi du talde eragileak. Alegia, erakusketatik harago, zer pentsatua eman nahi die talde eragileak astearen amaieran kultur etxera bertaratzen diren herritarrei. Hala, erakusketaren azken egunean, amaiera ekitaldia izango da arratsaldeko 18:30ean, antolatzaileen hitzetan, erakusketa testuinguruan kokatu eta sektoreko lan-baldintzen gainean hausnartzeko: "Emakumeen zapalkuntza forma desberdinak islatzen dituzten irudiak eta informazioa jasoko ditu, argazki zein testu desberdinen bidez".





Endika Barrenetxea eta Imanol Ansa, finalaren osteko sari banaketa ekitaldian Kutxabankeko Arrate Arrizabalagarekin batera. ORIAMENDI

# Ansak badu bere lehen txapela

**ERREMONTEA** Ezkurra, Urriza, Uterga eta Barrenetxearekin batera urrezko boskotea osatzera dator Ansa urnietarra. Larunbat arratsaldean Kutxabank Masters txapelketa irabazi zuen, bere ibilbideko lehena. Kostata lortu zuen, 30-29 Barrenetxea gaindituta

## Erredakzioa URNIETA

Otsailaren 18a, finala Galarretan. Txapela gertu dago Ansarentzat. Lehena, bere ibilbidean estrainekoa. Barrenetxea IV handia du aurkari. Finala aurrera doa eta markagailuak 17-28 adierazten du. Zer atera daiteke gaizki? Helmuga hortxe ikusteak, garaipena hatz puntekin ukitzeak itsutu dezake edonor, bereziki orain arte irabazi gabea izanez gero. Antzekoa gertatu zitzaion Imanol Ansari. Endika Barrenetxea garaituta zuen, baina lehia amaitu arte aukerak zabalik izaten dira. Hernaniarrak ez zuen erraz etsi. Muturreraino eraman zuen Ansa.

## 30-29 finalaren emaitza

29-29 iritsi ziren markagailura, eta edozer gerta ziteken. Azkenean Barrenetxearen huts txiki batek urnietarraren mesedera izan zen. Imanol Ansa urnietarra, Masters Kutxabank 2023 txapelketako irabazlea da. Merezki zuen garaipena, eta majo sufrituta iritsi zaio garaipenaz gozatzeko sasoi.

Oriamenditik hauxe kronikaren pasarte bat: "Txapelak irabaztea kosta egiten da, inork ez ditu oparitzen eta gaur Kutxabank Masterseko finalean erakutsi da. Ansa II.ak 29-30 irabazi dio Endika Barrenetxeari eta bere lehen txapela irabazi du,

baina azken tantoetan bizitza zaildu du. 17-28 irabazten joan ondoren nahi baino gehiago sufrituz. Azkenean, garaipena merezi izan zuen erremontista batek irabazi du txapela eta ia partida osoan zehar aurkaria baino hobea izan da. Finalak ordubete iraun badu, Urnietako aurrelaria nagusi izan da 50 minututan".

**BARRENETXEAK FINALEAN EZ ZUEN ERRAZ ETSI ETA MUTURRERAINO ERAMAN ZUEN ANSA**



ORIAMENDI

## Debuta profesional mailan

**ERREMONETA** Oriamendik lau erremontista fitxatu ditu profesionaletan jokatzeko; Gurrutxaga eta Irazu aurrelariak, eta Eskudero eta Aiestaran atzelariak. Galarretan ikasita, lau erremontistak Hernaniko pilotalekuan hasiko den txapelketan parte hartzen ariko dira, datorren martxoaren 4an hasita.



EUSKALTEL EUSKADI

## Ruandako Itzulian

**TXIRRINDULARITZA** Euskaltel Euskadi nazioarteko proba ugaritan parte hartzen ari da, denboraldi hasieran. Eta, horien artean, Ruandako itzulia da aipagarriena. Mikel Iturria taldekideen artean da, eta astearteko etapa menditsuan 17. sailkatu zen. Jendetza egiten ari da lasterketaren jarraipena, errepidera gerturatuta. Esperientzia berria euskal txirrindularientzat.

## Partidak Allurralden

**SASKIBALOA** Kirol taldeen denboraldiak aurrera egingo du, Inauterietako atsedenaldea eta gero. Larunbat honetan bi partida jokatu dira Andoainen, kadete eta infantil mailakoak. Neskak goizeko 09:00tan ariko dira eta Aterpe 10:30ean. Aurkariak Bera Bera eta Easo dira, hurrenez hurren.



AIURRI

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 23

**URNIETA Informazio-gunea**  
Energia komunitateari buruzkoa,  
Kiroldegiko bulego batean.  
Ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-  
20:00).

Azken eguna: *Otsailak 23.*

**ANDOAIN Lehiaketa**

Inauterietako argazki lehiaketa,  
14 urtetik gorakoentzat. Sari  
bakarra 350 eurokoa. Oinarriak:  
Andoain.eus webgunean.

Azken eguna: *Martxoak 10.*

**URNIETA Lehiaketa**

Antia literatur lehiaketa haur, gazte  
eta helduen mailetan.

*Lanak aurkezteko epea:*  
*Martxoak 17. Lekaio.*

## OSTIRALA 24

**ANDOAIN, URNIETA Matrikulazioa**  
Ikasturte berriari begira  
matrikulazio-epea zabalik da EAEn.  
Aukera zabala bi udalerrietan.  
Azken eguna: *Otsailak 24.*

**ANDOAIN Kontzertua**

Tanxugueiras Galiziako hirukotea.  
*20:00, Bastero.*

## LARUNBATA 25

**ANDOAIN Erakusketa**

Andoainen jaio eta Barasoainen hil  
zen Imanol Bengoetxea artistaren  
obrak ikusgai daude.  
Azken eguna: *Otsailak 25. Bastero.*



Lukiek taldea zuzenean ariko da. GOIENA

**ANDOAIN Lukiek taldearen kontzertua**

Eskola zaharra izeneko musika zikloa abiatzear da Andoaingo gaztetxean.  
Hilabetearen kontzertu bat, igande arratsez eta talde bakarra agertoki gainean.  
Martxoan Gailu eta apirilean Mice taldeak ariko dira.  
*Otsailak 26, igandea. 19:00, Andoaingo Gaztetxea. 7 euro.*

**ANDOAIN, URNIETA Manifestazioa**

Osasun arloko sindikatu guztiek  
deituta, osasun publikoaren alde.  
*12:00, Bulebarra.*

## IGANDEA 26

**URNIETA Antzerkia**

"Hondamendia", Axut! eta  
Artedrama taldeen eskutik.  
*19:00, Sarobe.*

## ASTEARTEA 28

**ANDOAIN Literatur-solasaldia**

"Zoriontsuak izatea erabaki  
genuen", Mikel Ayllonen eskutik.  
*19:00, Bastero.*

## OSTIRALA 3

**ANDOAIN M8: Antzezlan**  
"La panadera".  
*20:00, Bastero.*


## LARUNBATA 4

**ANDOAIN M8: Ekimena**  
"Berdintasunerako oihalak".  
*12:00-14:00, Plaza morea.*

## ASTEARTEA 7


**ANDOAIN M8: Ikus-entzunezkoak**  
Film laburren emanaldia.  
*18:30, Bastero.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

**Los Fabelman**  
Lar, 25. 19:30,  
22:00.  
Ig., 26. 19:30.  
Astl, 27. 19:30,  
22:00.

**Asterix y Obelix  
el reino medio**  
Lar, 25. 17:00,  
22:00.  
Ig., 26. 17:00.



## SINOPSISIA

**Los Fabelman**

**Zuzendaria:** Steven Spielberg. **Gidoia:** Tony Kushner, Steven Spielberg. **Aktoreak:** Michelle Williams, Paul Dano, Gabriel LaBelle, Seth Rogen, Judd Hirsch, Mateo Zoryon Francis-DeFord...  
**Herrialdea:** AEB (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, familia, haurtzarora. **Iraupena:** 151 min.

## Zuzendariaren autobiografia


Hollywoodek eman duen  
zuzendari emankorrenetakoa da  
Steven Spielberg. Haren  
haurtzarori eta gaztarori  
buruzko filma da, hein batean.  
Autobiografiatik asko duela,  
alegia. 1950eko hamarkadaren  
amaieran eta 60ko  
amarkadaren hasieran girotuta,  
Arizonako Sammy Fabelman

izeneko haur batek, bere ama  
xelebre eta artistak eta bere aita  
pragmatiko eta informatikako  
ingeniariak eraginda, familia-  
sekreto suntsizaille bat  
aurkituko du. Istoriok  
kontatuz eta filmazioak  
eginez, protagonista den  
gaztetxoak bere nortasuna  
eraikiko du.

# Txotx 2023

## GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean  
[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

POSTONTZIA

MARI CARMEN ALONSO IRIGORAS ANDOAIN

Akelarre



Nire haserrea adierazi nahi dut Akelarre programatik, eta, aldi berean, EITBko zuzendariaren dimisioa eskatu. Programa honek euskal kultura barregarri uzten eta zapaltzen du. Iraingarria da euskal kulturari ematen dion tratamendua. Umore gisa saldu nahi digutena, berez, euskal kultura Espainiako ikuspegitik barregarri uzten duen zaborra da, eta hori, arduradunen ezjakintasunagatik.

Programa ez dator bat EITB sortzeko legearen printzipioekin, eta harentzat bost axola irainduak izan diren milaka euskaldunak! Euskaldunak exotikotzat eta errespeturik gabekotzat hartzen gaitu.

Valeria Ros aurkezleak dio, umorea tresna izanda, eguneroko kezketatik urrundu nahi dituela euskaldunak eta hemendik kanpokoak. Bada, ez dakit zer esan nahi duen. Gogorarazi beharko diogu ez dugula zertan zergarik ordaindu euskal telebista bat mantentzeko, baldin eta euskaldunak iraintzeko zaborra irentsiarazi behar badigu.

40 urte jasan genituen hemen, euskaraz egiten genuenok “¡Aquí se habla en cristiano!” entzutera behartu gintuztelarik, kalean “¡Esto es España!” etorkin batzuen ahotatik entzun beste erremediorik eduki ez genuelarik, eta abar.

Baina ez gaitzen iraganeko polemiketan sartu.

Uste dut Akelarre saioa eta bere aurkezlea gehiago egokitzen direla TeleMadrid edo antzeko telebistetara, sortzea horrenbeste kostatu zen euskal telebista batera baino gehiago.

Akelarre saioak, nahiz eta ikusleen milaka kexa eragin eta legebiltzarrean ere kritikak jaso, bereari eusten dio, eta atal berriarekin jarraitzen du, argudiatuz “txufla” dela bere ikurra. Bada, argi esan beharko zaio “txufla” horretatik sobera eduki dugula Vaya Semanita iraganeko saioari esker! Hori bai zela umorea, eta ez Akelarre saioko zaborra.

Andoni Aldekoa, dimisioa!



Osasun publikoaren alde

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek manifestazioa deitu dute otsailaren 25erako, Osakidetza defendatzeko eta osasun publikoa desegitearen aurka. Donostiako mobilizazioa 12:00etan abiatuko da Bulebarretik: "Langileei, herritarrei eta gizarte mugimenduei guztion osasuna defendatzeko mobilizatzea dei egiten diegu".



Egunean Behinen saridun

11. denboraldiaren bigarren eta hirugarren asteak igarota, "Aiurri" taldeko zozketan irabazleak "Saioa Martinez" eta "Xabi" izan dira. Arruti gozotegiko sari gozoa jaso zuen aurreko ostiralean Saioak. 400 lagunetik gora parte hartzen ari dira hamaikagarren denboraldian. Apirilaren 2ra bitarte luzatuko da, eta astero sari gozoa zozkatuko du Aiurrik.

ZORION-AGURRAK



URNIETA  
**Zorionak Urko!**  
Urko Perezek hamar urte beteko ditu datorren otsailaren 27an. Ondo pasa zure urtebetetze eguna ta segi hain jatorra izaten! Besarkada handi bat!!

DEIALDIA

LA SALLE BERROZPE ANDOAIN

Ikastaroak langabeentzat eta langileentzat

Otsailean eta martxoan, hiru ikastaro eskainiko dira langabeentzat, eta beste 21 jardunean diren langabeentzat, bereziki, Lanbideren bidez. Alde batetik, laneratzeko prestakuntza eskainiko du ikastetxeak, kalitateko prestakuntza jasotzeko beharrezko baliabide pertsonalak eta materialak haien eskura jarri. Ikastaro horietan parte hartu nahi duten guztiak Lanbideren edozein bulegotara joan daitezke, aurretiko izen-ematea egitera. Ikastaro horiek % 100eko dirulaguntza dute. 21 ikastaro eskainiko dira ere jardunean diren langileentzat bereziki, horiek ere Lanbide % 100ean diruz lagunduta. Zehazki, hiru lanbide-familiatako 21 ikastaro eskaintzen dira: elektrizitatearen eta elektronikaren inguruko 5 ikastaro, fabrikazio mekanikoaren inguruko 11 ikastaro, eta administrazioaren eta gestioaren inguruko 4 ikastaro. Gero eta garrantzia handiagoa du etengabeko prestakuntzak. Izan ere, euskal enpresa-sarearen ustetan langileak dira bere ahalmenik behinena, eta, lehiakorrek izango badira, kualifikatuta, motibatuta eta eguneratuta egon behar dute haiek. Aurretiko izen-ematea egiteko, jo ezazu webguneko ikastaroen programazioa atalera edo jarri gurekin harremanetan telefono-zenbaki honetan: 943 590 557.

ESKELA

Juan Iguarain Elustondo



Egurrola baserriko semea, *Urnietar Prestu 2012* izendatua. Iruran hil zen, urtarrilaren 27an, 78 urte zituela.

*Agur bai Juan laguna,  
adiskide beti!  
Herri kirolarien  
hauspo-emaile ezti;  
Berak eginak ere  
baten faltan bat t'ardi.  
Urnietar prestu izanik  
gure gogoan bedi!*



Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra (Manuel Larramendi Kultur Bazkuna)  
Urnieta, 2023ko otsailak 16.

AGURRA

Ixiar Arin Arrieta

IXIAR,  
Zuk sortutako enbor hartatik sortu gara besteak, Ikastola osatzen dugun adar eta kimu berriak.

Pauso ausartez ekin zenuen bidea osatzen jarraituko dugu, euskaratik eta euskaraz.

Eskerrik asko bihotzez, Ixiar!



Andoain, 2023ko otsailaren 16an



# Aiurri.eus gunea, egunero zabalik



Azken ordukoak



Zozketak



Agenda



Argazki-galeriak



Bideoak




Atal bereziak



Agenda



Zorion-agurrak



Eskelak